


Helduen literatura

Dirua galgarri
Mariano Izeta
Auspoa, 1962



Lehen thriller nafarra-edo

ZALAPARTATXOA eragin du ezjakintasunak: atera berri duten gaztelaniazko eleberri bat omen da lehen thriller nafarra. Noski, beste ezer baino lehen, sinetsi behar dugu izen hori merezi duen ezer egon daitekeenik. Gero, irribarrea marratzuko zaio Nafarroan egin den literatura gutxi-asko ezagutzen duenari. Iban Zaldia eta Juan Kruz Lakasta aurreratu zaizkit: Miguel Sanchez-Ostiz eta enparauak ahaztu gabe, euskarazko hainbat etsenplu ekarri dizkigute. Alberto Ladron Arana aipatzen zuen Zalduak, eta Aingeru Epaltza eta Jon Alonso nabarmentzen. Atzerago jotzen zuen Lakastak, Oskillaso ekarriz, eta ustez guztietan aitzindaria, Mariano Izeta. Ez diot nik, ez Lakastak soilik. Aingeru Irigaray euskaltzainak gaztigatzen digu 62ko *Dirua galgarri* thriller nafarraren peredikuan: “*Euskaraz leenbiziko liburua ote da hau Baztanen? Polizia-nobela bezela bai, leena da*”. Eta esaten duenak Baztanen, esaten du Nafarroa osoan –beti ere, bihar agertzen ez bada eskuizkribu bat, nik dakita, Zaraitzuko ibaxan-.

Baten batek objektzioren bat jar dezake, hala ere. Esaterako eleberriaren haria Parisen gertatzen dela. Baina, zer, donostiar batek Nafarroan kokatzen badu thrillerra da nafarra, eta nafar batek Parisen kokatzen badu ez da? Gainera, ze demonio, “*oraindik biotzean zituzten Euskalerriko oiturak eta mintzaira*” liburukoek. Zalantzarik ez da thriller batek

bete beharrekoak biltzen dituela: lapurrak, luze gabe, Subemandile, Mirue eta Zapelatza, Pizti eta Beltza –eta hemen neroni urduritu naiz, beltzak ez orain atletismoan, aspalditik kendu baitigute lekua euskal nobeletan ere-. Poliziak, behar bezalakoak, atxilotuari esateko kapaz direnak: “*Zuk ainbertze maite baduzu zure sorlekua, zergatik etzara beingoan Kongora goaten? Emen ez tugu beltz bearrik*”. Eta, bistan da, heriotzak, kurioski, kasu honetan, erabat argitzen ez direnak. Baina ez pentsa literatura handiaz ari garenik –thriller bat literatura handia izan daitekeela uste badaiteke–: oso da lañoa eleberri osoa, dena ateratzen da ongi lehenengoan, zuzen doa aurrera gertaeren marra, presaka kasik beti batetik bestera.

Mariano Izetaren *Dirua galgarri* honekin abiatzen den ibilbideak, momentuz, Jon Alonsoren *Zintzoen saldoan* hartan dauka azken geltokia –eta azken horren plazer puskaz handiagoa hartuko du irakurleak, baiki-. Eta ez zaizkit etiketak bereziki axola. Nahi baduzue prest nago “*Mosen Bernat Etxepareren kantua*” bera lehen thriller nafar gisa onartzeko. Baina zeinen ondo datozen batzuetan besteren ezjakintasunak geure buruei errepasotxo bat emateko. ■

Aritz Galarraga



1. finalaurrekoa

otsailak 16, larunbata, 18:00etan, Izarrako Kultur Etxean



Asier Otamendi Irati Anda Serapio Lopez Orlando Arretunandia Rikardo G. Durana Juan Mari Juaristi
Gai-jartzailea: Unai Gomez



Bukerle Nagusiak



www.arababertsosozale.org

